años para llegar a ese 33%. Ya ha pasado ese plazo, ha habido diferentes Gobiernos Vascos que no han hecho lo adecuado para conseguir una progresión que permitiera llegar a ese 33%. En los dos últimos años el Ayuntamiento asume más o menos un 73 % del presupuesto de Errenteria Musikal y el Gobierno Vasco en torno al 13% y con los datos que hay sobre la mesa parece que en el año 2014 va a ser todavía inferior. Aunque se apruebe la declaración hay que pedir al Gobierno Vasco que rápidamente en los próximos meses presente un plan en el que concrete con datos, plazos y aportaciones económicas de qué manera y cuándo vamos a llegar a ese 33%.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones,

Udalbatzak aho batez

El Pleno de la Corporación por unanimidad,

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

Onartzea Adierazpen Instituzionalaren proposamena, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari eskatzekoa Eusko Legebiltzarrak aho batez 2013ko otsailaren 28an onartutako transakzio-zuzenketa betetzeko.

Aprobar la propuesta de Declaración Instituconal solicitando al Departamento de Educación, Política lingüística y Cultura del Gobierno Vasco a cumplir la enmienda transaccional aprobada por unanimidad por el Parlamento Vasco del 28 de febrero de 2013 que queda reflejada en la parte expositiva del presente acuerdo.

**5. Errenteriako Ezkerrak (Ezker Anitza-IU) aurkeztutako mozioa Errenteria “Fracking gabeko herria” izendatu dadin.**

**5. Moción presentada por Errenteriako Ezkerra (Ezker Anitza-IU) solicitando la declaración para Errenteria de “municipio libre de fracking”**

Idazkari nagusiak Errenteriako Ezkerrak (Ezker Anitza-IU) aurkeztutako mozioa irakurri du; honela dio:

La Secretaria General pasa a leer la moción presentada por Errenteriako Ezkerra (Ezker Anitza-IU) que literalmente dice:

Haustura hidraulikoa edo frackinga, ezohiko gasa erauzteko teknika bat da; gaur egun zalantza asko eragiten du teknika horrek, pertsonen osasunarengan eta ingurumenean izan dezakeen eraginagatik, bai nekazaritza-erabileran, eta bai natura-ingurunearekin

La fractura hidráulica o fracking es una técnica para la extracción de gas no convencional que plantea en la actualidad importantes interrogantes sobre la salud de las personas y sobre las afecciones al medio ambiente, tanto en los usos agrícolas del suelo,

lotutakoetan; batez ere, lurpeko ur-geruzak kutsatzeko benetako aukera dagoelako, eta horietatik hasita, baita lurrazaleko ura ere, teknika honetan ezinbestekoak diren produktu toxikoak eta kutsagarriak injektatzen direlako. Gainera, arrisku geologikoen arloko segurtasuna mehatxatzen du, gerta litezkeen mugimendu sismikoak direla-eta.

como las relacionadas con el medio natural, fundamentalmente por la posibilidad real de contaminación de los acuíferos subterráneos y, a partir de ellos, del agua superficial dada la inyección de productos tóxicos y contaminantes que resultan imprescindibles en esta técnica. Además representa una amenaza sobre la seguridad en materia de riesgos geológicos a raíz de los movimientos sísmicos que podrían producirse.

Halaber, fracking teknika erabiltzen denean lur-eremu handiak okupatzen dira; ustiapena eraginkorra izan dadin, putzu asko egin behar direlako; kutsatutako ura biltzeko baltsak sortu behar direlako; eta gasa garraiatzeko zisterna-ibilgailu asko ibili behar direlako bertatik. Garapen eredu horrek eragin larriak izango ditu landa-inguruko jarduueretan, hala nola: nekazaritzan, abeltzaintzan eta turismoan; eta ingurumenean ere eragina izango luke.

El fracking supone también una alta ocupación del territorio dada la cantidad de pozos que deberían realizarse para optimizar la explotación, la necesidad de crear balsas para acumular el agua contaminada y el elevado tránsito de vehículos con cisternas para evacuar el gas. Este modelo de desarrollo tendría graves impactos en las actividades que mantienen el medio rural, como la agricultura, ganadería y el turismo, además de las afecciones al medioambiente.

Aipatu ditugun eragozpen horiengatik frackinga ez da bateragarria Europak garapen iraunkorreko eredurako proposatzen dituen helburuekin, eta hainbat arau urratzen du, bereziki Uraren Esparru Zuzentaraua. Europar Legebiltzarreko Ingurumen, Osasun Publiko eta Segurtasun Batzordeak egindako txosten batean adierazten da teknika horren erabilerak zer arrisku sor dezakeen; halaber, jasotzen da, hori dela eta, Europar Batasuneko zenbait estatuk luzamendua edo debekua onartu dutela. Espainian, Kantabriako Autonomia Erkidegoan eta Errioxan jada egin dituzte legeak frackinga debekatzeko, eta helburu hori bera duten beste lege-proposamen batzuk ere bideratzen ari dira.

Estas circunstancias hacen incompatible el fracking con los objetivos planteados por Europa para un modelo de desarrollo sostenible, incumpliendo varias normas, especialmente la Directiva Marco del Agua. Un informe elaborado por la Comisión de Medio Ambiente, Salud Pública y Seguridad del Parlamento Europeo manifiesta los riesgos que puede generar la utilización de esta técnica, motivando que varios Estados de la Unión Europea hayan aprobado una moratoria o prohibición. En el Estado Español, la Comunidad Autónoma de Cantabria y La Rioja ya han legislado la prohibición del fracking, y otras están en tramitación de Proposición de Ley con la misma finalidad.

Horregatik guztiagatik, Euskadin ikerketa egiteko baimen-eskaerek gizartean eragin duten erantzuna dela-eta; esan dezakegu, egun gizartean kezka handia dagoela, ezohiko gasa erauzteko teknika hori abian jartzeak dituen arriskuei dagokienez; izan ere, gure lurraldean teknika hori ezarriko balitz, gure autonomia erkidegoari konpondu ezinezko kaltea

Por todo ello, y habida cuenta de los permisos de investigación que se han solicitado en Euskadi y de la importante reacción social que han generado, podemos decir que, en la actualidad, existe una preocupación social importante por los riesgos que supone la puesta en marcha de la extracción de gas no convencional mediante esta técnica, que de

eragingo lioke, bereziki pertsonen segurtasunari eta gure identitate-zeinu nagusienetakoa den natur ondareari.

implantarse en nuestro territorio, conllevaría un irreparable daño a nuestra Comunidad Autónoma, en especial en la seguridad sobre la salud de las personas y sobre una de nuestras principales señas de identidad, como es nuestro rico patrimonio natural.

Eragindako udalek frackingik gabeko eremu izendatu dituzte haien udalerriak, hala egin dute Arabako ia udalerri guztiek, izan ere, Araba da teknika horren mehatxua gehien pairatu duen lurraldea. Gainera, herritar ugarik eskatu dio Eusko Legebiltzarrari teknika hori debekatzeko, herri ekimen legegileen bidez.

Los ayuntamientos afectados se han declarado como zonas libres de fracking, así lo han hecho la practica totalidad de los municipios alaveses, al ser Araba el territorio más amenazado por esta práctica. Además numerosos ciudadanos y ciudadanas han instado al Parlamento Vasco a que prohíba esa práctica a través de iniciativas legislativas populares.

Azaldutako guztiagatik, Udalbatzak ondorengo akordioa hartzen du:

Por todo lo anterior el pleno del Ayuntamiento asume el siguiente:

**AKORDIOA**

**ACUERDO**

ERRENTERIA-KO Udalak arbuiatu egiten du haustura hidraulikoa edo frackinga erabiltzea ezohiko gasa ustiatzeko eta erauzteko jardueran; eta Errenteria "frackingik gabeko eremu" izendatzen du, pertsonen osasuna eta gure ingurumena eta natur baliabideak babeste aldera.

El Ayuntamiento de Errenteria manifiesta su rechazo a la utilización de la técnica de la fractura hidráulica o fracking en la actividad de explotación y extracción de gas no convencional, y declara a Errenteria “municipio libre de fracking”, como garantía de la salud de las personas, protección de nuestro medio ambiente y los recursos naturales.

* Ferradás jaunak (Ezker Anitza-IU) adierazi du ez duela hitza hartuko frackingak zer suposatzen duen azaltzeko, ulertzen du mozioaren testuan nahiz kontsultatzeko moduan dauden beste batzuetan aurki daitezkeela frackingaren aldeko nahiz kontrako argudioak eta azalpen nahikoak daudela zer den azalduz. Frackingak pertsonen osasunean eta ingurumenean izan dezakeen eraginaren inguruko zalantzak planteatzen ditu. Ez dago zalantzarik geroz eta urriagoak diren baliabide naturalak -ura kasu- xahutzen ditugula. Horren guztiaren ondorioz, 2011ko ekainean, Europako Parlamentuaren Ingurumen, Osasun Publiko eta Segurtasun Batzordeak txosten bat egin zuen eta txosten horren ondorioz Frantzia eta Bulgaria bezalako herrialde hain desberdinek

* Interviene el Sr. Ferradás (Ezker Anitza-IU) manifestando que no va a intervenir para explicar lo que supone el fracking, entiende que en el texto de la moción como en otros textos que se pueden consultar se pueden encontrar argumentos tanto a favor como en contra del fracking y hay explicaciones suficientes acerca de lo que es. Lo que si plantea son las serias dudas que generan la incidencia del fracking en la salud de las personas y su repercusión en el medio ambiente. Lo que no parece que tenga mucha discusión es el despilfarro de recursos naturales cada vez más escasos como es el caso del agua. Fruto de todo esto en junio de 2011 la Comisión de Medio Ambiente, Salud Pública y Seguridad del Parlamento Europeo emitió un

debekatu egin zuten, eta beste zenbait estatuk luzamendu bat ezarri zuten frackingaren erabileran. Berriki, Britainia Handiak luzamendu hori kendu du, baina adierazi behar da protesta-mugimendu bat piztu dela estatu ingelesak luzamendu hori kendu duenean. Edonola ere, gertuago begiratuta, Kantabria, Errioxa eta Nafarroako parlamentuek debekatu dute frackinga erabiltzea eta horrek frogatzen du ez gaudela sigla edo fronte politikoen kontuen aurrean; komeni da gogoratzea Kantabriako eta Errioxako parlamentuetan Alderdi Popularrak gehiengo absolutua duela. Sentsibilitate kontua da, bidezkoa da zuhurtasun-printzipioa aplikatzea ingurumenari eta gizakiaren osasunari. Edonola ere, kontua ez da eztabaidatzea, kontua da zer energia-motaren aldeko apustua egin nahi dugun. Erregai fosiletan oinarritutako eredu energetikoaren alde egiten jarraitzen dugun edo energia berriztagarrien alde egiten dugun, zein eredu nahi dugun. Gogoratu behar da udal hau bere garaian Alkateen Itunari atxiki zitzaiola eta ildo horretan udal honen gehiengoak bere egiten duen politikak argi esaten duela zer energia-ereduren alde egiten duen. Adibidez, berriki osatu den Alemaniako Gobernuan eskuineko Batasun Demokrata Kristauak eta alderdi sozialdemokratak gobernatzen dute energia berriztagarrien ereduaren aldeko apustu argia egin dute; asmoa da epe laburrean energia-iturrien % 50 iturri berriztagarrietatik jasotzea. Espainiako estatuan, ekonomikoki zigortu eta ito egiten da energia berriztagarrien sektore estrategikoa. Horregatik guztiagatik, eta sistema hori erabiltzeko bermeak ematen dituen neurririk ez dagoenez, ez litzake onartu beharko Errenterian horrelako jarduerak burutzerik eta, ondorioz, eskatzen dute Errenteria frackingik gabeko herri izendatzea, herritarren osasuna bermatzeko, zuhurtasun-printzipioa aplikatuta besterik ez bada ere; bestalde, benetan bermatzen dena da ingurunea eta ingurumena babesten direla.

informe que llevó a Países tan distintos como son Francia y Bulgaria a prohibirlos y a otros estados a declarar una moratoria en la utilización del fracking. Recientemente en el caso de Gran Bretaña se ha levantado esta moratoria pero también hay que señalar el movimiento popular de protesta que se ha generado precisamente al levantar el estado inglés dicha moratoria. En todo caso, yendo más cerca los Parlamentos de Cantabria, Rioja y Navarra ya han legislado también en el mismo sentido de prohibición del uso de la técnica del fracking, esto viene a demostrar que no estamos ante una cuestión de siglas políticas o de frentes políticos, conviene recordar que en el Parlamento de Cantabria o en el de La Rioja el Partido Popular gobierna con mayoría absoluta. Estamos ante una cuestión de sensibilidad y ante una cuestión de razonable aplicación del principio de precaución en relación al medio ambiente y especialmente a la salud humana. En todo caso lo que se trata de discutir , es porqué tipo de energía apostamos como modelo . En este sentido la cuestión es si seguimos apostando por un modelo energético basado en el uso de combustibles fósiles o apostamos por un modelo basado en la utilización de energías renovables. Recordar que este Ayuntamiento en su día se adhirió a la declaración del Pacto de Alcaldes y en este sentido la política que en principio asume la mayoría de este Ayuntamiento dice claramente porqué modelo de energía apuesta. Sin ir más lejos, recién constituido el Gobierno Alemán donde gobierna la CDU de derechas y el SP socialdemócrata ha apostado claramente por el modelo de energías renovables y apuestan en breve plazo de tiempo en que la fuente de energía sea en un 50% procedente de esta fuente. En el estado español lo que se hace es penalizar económicamente y estrangular un sector estratégico como es el de las energías renovables. Por todo ello y en ausencia de medidas que den garantías adecuadas de utilización de este sistema, no se debería permitir que en Errenteria se puedan desarrollar actividades de este tipo y por lo tanto es por lo que piden que Errenteria sea declarada

municipio libre de fracking como garantía de salud de los vecinos y vecinas aunque sólo sea como elemental la aplicación del principio de precaución y por otro lado lo que sí se garantiza es la protección del entorno y del medio ambiente.

* Herzog jaunak (PP) adierazi du Eusko Jaurlaritzak urrian onartu zuela Euskal Herriko natura babesteko legearen aldaketa eta ez du berariaz debekatzen hidrokarburoak aztertzeko eta ustiatzeko haustura hidraulikoaren teknika edo frackinga erabiltzea babestutako espazio naturaletan; ingurumen-balioekin bateraezinak diren erauzketa-jarduerak debekatzen ditu baizik. Euskal Herriko natura babesteko legearen 17. artikuluak ezartzen du babestutako espazio naturalen mugen barnean debekatu egingo direla babesten diren ingurumen-balioekin bateraezinak diren erauzketa-jarduerak. Halaber, ezartzen du babestutako espazio natural bakoitzeko plangintzako eta kudeaketako tresnek xedatuko dutela erauzketako jarduerak bateraezinak diren ingurumen-balioekin eta espazio horiek babesteko irizpideekin. Testuak zehazten du teknika horiek ingurumen-balioekin bateragarriak izango balira, proiektuak ingurumenaren gaineko eraginari buruzko nahitaezko balorazioaren mende jarri beharko liratekeela. Mozioari dagokionez, Ezker Anitzaren ekimena Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziaren aurkakoa da. Euskal Herriko natura babesteko legeak argi uzten du egoera natural babestuetan eta horien afektazio-eremuetan plangintza- eta kudeaketa-tresnek erabakiko dutela teknika jakin bat babesten diren ingurumen-balioekin bateragarria den edo ez. Zuhurtzia-printzipioa aipatzen dute, uste dute 17. artikuluak zorrotz mugatzen ez duen arren frackingaren erabilera, nahiko baldintzatzen duela, eta juridikoki ziurragoa dela. Ez dakite etorkizunean teknologiak zer garatuko duen edo zer asmatuko duten, teknika horrek zer duen alde eta zer kontra.

* Interviene el Sr. Herzog (PP) manifestando que el parlamento vasco aprobó en octubre la modificación de la ley de conservación de la naturaleza del País Vasco que no prohíbe de forma expresa la exploración y explotación de hidrocarburos mediante la técnica de fracturación hidráulica o fracking en los espacios naturales protegidos sino que veta las actividades extractivas que resulten incompatibles con valores ambientales. El artículo 17 de la ley de conservación de la naturaleza del País Vasco, establece que dentro de los límites de los espacios naturales protegidos se prohibirán las actividades extractivas que resulten incompatibles con los valores ambientales que se protegen. Establece que serán los instrumentos de gestión de planificación y de gestión de cada espacio natural protegido los que determinen la incompatibilidad de las actividades extractivas con los valores medioambientales y los criterios de protección de dichos espacios. El texto precisa que si fueran compatibles dichas técnicas con los valores ambientales, los proyectos se someterán a la perceptiva valoración del impacto ambiental. En cuanto a la moción, la iniciativa de Ezker Anitza contraviene la jurisprudencia del Tribunal Constitucional. La ley de conservación de la naturaleza del País Vasco deja medianamente claro que dentro de los límites de los estados naturales protegidos y sus zonas de afección, serán los propios instrumentos de planificación y gestión los que determinen si una determinada técnica es incompatible o no con los valores ambientales que se protegen. Se invoca al principio de precaución, ellos creen que aunque el artículo 17 no hace una previsión taxativa del uso del fracking, si la condiciona suficientemente y es jurídicamente más segura. No saben en el futuro que desarrollará la tecnología o qué se averiguará, qué tiene a favor y

en contra esa técnica.

* Peña andreak (EAJ-PNV) adierazi du gure herrialdean hobia aurkitu zenetik ulertzen dutela ikuspegi instituzionaletik, erakunde publikoen ikuspegitik, zorrotz, gardentasunez eta arduraz jardun behar dela baliabide hori ustiatzeak izango lituzkeen ondorio ekonomiko eta sozialak ebaluatzerakoan, eta batez ere natura-ingurunean eta gure ingurunean izango lituzkeenak aztertzerakoan. Ildo horretan, beren ustez gure inguruneko edozein energia-erreserba balio estrategikotzat hartu beharko litzateke komunitatearen garapenerako; ez litzateke txarra izango energetikoki independente izatea. Ulertzen dute edozein arduradun instituzionalek ahalik eta zehaztasun handienaz ezagutu behar duela lehengai horren magnitude eta potentzialtasuna, bai eta erauzketak eta ustiatzeak sor litzaketen eragin oro ere. Ildo horretan, Errenterian baldin badago, bere taldea ez da horrela, besterik gabe ustiatzearen aldekoa; jarrera politiko gisa, uste dute gas naturaleko hobiak aztertu eta ikertzen dituzten planak -garatu diren eta ingurumen-araudiaren eta zuhurtasun-printzipioaren araberakoak- prestatu eta, hala badagokio, onartu behar direla. Beren ustez, onena izango litzateke batzorde zientifiko independente bat sortzea bilakaera teknikoa zein puntutan dagoen aztertzeko. Funtsezkoa iruditzen zaie batzorde horrek ustiapen horretarako berariazko ingurumen-araudia ezartzea. Ustiapen eta ikerketa horren emaitza gisa, eta bideragarritasun ekonomikoa funtsean zehaztu ondoren gas ez-konbentzionala ustiatzeko aukera planteatzen bada, EAJ, alderdi gisa, erauzketarako luzamendu mugagabea aitortzearen aldekoa izango litzateke; luzamendu hori kentzeko, aipatutako batzordeak txosten bat egin beharko luke eragindako inpaktuaren ondorioen gaineko zuhurtasun-printzipioa eta ziurtasun zientifikoa errespetatu beharko lirateke. Mozioaren funtsaren zati batekin ados daude, baina bere taldea abstenitu egingo da.

* Interviene la Sra. Peña (EAJ-PNV) manifestando que desde que se hizo el hallazgo de la existencia del yacimiento en nuestro país, entienden que debe ser obligado por lo menos desde el punto de vista institucional, desde el punto de vista de las instituciones públicas, el mantenimiento de posiciones de rigor, transparencia y responsabilidad a la hora de ser evaluadas las consecuencias económicas, sociales y sobre todo de respeto escrupuloso al medio natural que puede tener la explotación hipotética de este recurso y las consecuencias que tendría en nuestro entorno. En este sentido consideran que cualquier reserva energética que pudiera considerarse en nuestro entorno debe ser tenida en cuenta como un valor de carácter estratégico para el desarrollo de la comunidad, no estaría mal una independencia energética. Entienden que es obligación de cualquier responsable institucional, conocer con la mayor precisión de la que sea capaz, la magnitud y la potencialidad de la materia prima en cuestión. Igualmente los impactos de todo tipo que su extracción y explotación podrían llevar aparejadas. En ese sentido, su grupo no es partidario de que se explote en el caso de que se determinara la presencia en Errenteria así a lo loco, como posición política, creen que deben elaborarse y en su caso aprobarse planes que exploren e investiguen los yacimientos de gas natural que se han desarrollado y que sean conformes a la normativa medioambiental y al principio de cautela. Entienden también que sería óptimo la creación de una comisión científica independiente que analice el estado de la evolución de la técnica. Les parece fundamental el establecimiento por parte de esa comisión de una normativa ambiental específica para dicha explotación. Si como resultado de esa explotación e investigación y especificada fundamentalmente que la viabilidad económica se plantease la oportunidad de proceder a la explotación de gas no convencional, su grupo como PNV es partidario de declarar una

moratoria de carácter indefinido para la extracción del recurso que se levantaría exclusivamente en caso de que hubiera un informe previo de la comisión mencionada y con el respeto a los principios de precaución y certidumbre científica sobre las consecuencias de los impactos provocados. Comparten en parte la esencia de la moción pero su grupo se va a abstener.

* Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak-Sozialistas Vascos) adierazi du diskurtso bat zeukala prestatuta, baina diskurtso bat baino gehiago bere alderdiaren ebazpen politikoa zela; baina PPko bozeramailea entzun ondoren, ados dago hark esandakoarekin - irakurritako artikuluak argi geratu dira-; baina EAJko kidea entzun ondoren, haluzinatuta dago azken esaldiarekin. Norberak jakingo du zein den bere jarrera, batez ere independentzia energetikoaz ari garenean, baina horrela hartzen dira erabakiak gero. Alderdi Sozialistak, Euskadin eta estatuaren gainerakoan haustura hidraulikoaren bidez baliabide teknikoak eskuratzeko ekimenei dagokienez, erabaki du bere ustez Euskadik eta, oro har, estatu osoak, eztabaida bat egiteko daukatela baliabide energetikoen ustiapenaren inguruan. Eztabaia lasaia, ahalik eta iritzi gehien jasoko dituena eta kontuan izango dituena energia-beharrak, energia-iturrien egungo jatorriaren azterketa, aukerak eta bakoitzaren arrisku eta abantailak; emaitzak denboran iraunkorra izan beharko du, egoera politikoa eta legealdi bakar bat baldintza lezaketen presio politiko, ekonomiko eta sozialak edozein direla ere. Euskadik, estatuaren gainerakoaren moduan, boluntarioki hartu zituen 2020rako energiarako autosufizientziaren betebeharrak, eta hori kontuan izan behar da eztabaidan. Alderdi Sozialistak gobernuan nahiz oposizioan egon denean guztiz errespetatu ditu ingurumen-eskakizun zorrotzenak edozein jarduera ekonomiko burutzekorakoan. Gobernutik Euskadi 2020 konpromisoa sustatu zuen, bai eta natura babesteko legearen aldaketa ere, eremu babestuetan aridoak erauzteko debekua ezartzeko. Konstituzio Auzitegiak erabaki zuen erabaki hori oinarrizko

* Interviene el Sr. Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) manifestando que tenía un discurso preparado, más que discurso era la resolución política de su partido, pero después de oir al portavoz del PP está de acuerdo con lo manifestado, está bien claro el articulado leído, pero después de oir a la compañera del PNV, alucina con la frase final. Cada uno sabrá cual es su posición sobretodo cuando hablamos de independencias energéticas y luego se toman las decisiones que se toman. El Partido Socialista ante este debate abierto en Euskadi y en el resto del estado sobre las iniciativas de exploración para la obtención de recursos energéticos a través de las técnicas de fracturación hidráulica, ha resuelto que considera que Euskadi y el resto del estado en general tiene pendientes un debate sobre la exploración de recursos energéticos. Un debate sereno que cuente con el máximo de opiniones y que tenga en cuenta las necesidades energéticas, el análisis de la procedencia actual de las fuentes de energía, las alternativas existentes y los riesgos y oportunidades de cada una de ellas, cuyo resultado sea sostenible en el tiempo más allá de las coyunturas políticas y de las presiones políticas, económicas y sociales que pudieran condicionar una única legislatura. Euskadi como el resto del estado, tiene unas obligaciones suscritas de forma voluntaria sobre la autosuficiencia energética para el año 2020 que debe ser tenida en cuenta en estos debates. El Partido Socialista , ha mostrado estando en el gobierno y en la oposición un respeto escrupuloso a las máximas exigencias medioambientales para la práctica de cualquier actividad económica. Desde el gobierno impulsó el

legeriaren aurkakoa zela eta Euskal Autonomia Erkidegoa kondenatu zuen ingurumena larri kaltetzen duten praktikak egiten ari ziren enpresei kalte-ordainak ematera; hori dela-eta, boluntarismotik hartzen diren erabakiek herritarren zergekin ordaintzen diren ondorioak izaten dituztenez batzuetan, Euskal Sozialistek konpromisoa hartzen dute beharrezko neurri guztiak hartzeko euskaldunak ez daitezen berriz lege-oinarri nahikorik gabeko erabakien pagano izan. Hori kontuan izanda, Euskal Sozialistek frackingaren inguruko eztabaida honetan adierazten dute ezinbestekoa dela ingurumena errespetatzearen eta aurrerapenaren arteko oreka aurkitzea. Badago hidrokarburoen erauzketari buruzko berariazko lege-araudia. Erauzketako jarduera guztien aldeko eta kontrako alderdiei buruzko datu teknikoak eskatu dituzte -frackingarenak barne-, eztabaida soseguz egin ahal izateko behar hainbeste denbora izatea nahi dute, beroaldirik eta faltsukeriarik gabe egiteko. Uste dute frackingaren aurkako plataformak sustatutako herri-ekimena aukera ona dela eztabaida hori abian jartzeko. Uste dute ingurumenarekiko eta herritarren energia-beharrekiko konpromiso hobea izatea ekoizpeneko autonomiarantz aurrera egitea dela. Beren ustez, ingurumen-eztabaida eta eztabaia energetikoa aldi berean egin behar dira, estali beharreko beharrizanak alde batera utzi gabe, eta horretarako onartu zen aurreko legealdian estrategia energetikoa. Beren ustez, zalantza asko daude frackingaren inguruan, zalantzan jartzen dituzte teknika horren aldeko txosten itxuran teknikoak, interes enpresarialak izan ditzaketelako; beste txosten batzuekin aurkako zalantzak ere badituzte, beste interes batzuk izan ditzaketela, eta, noski, defendatzen dute txostenek hiru baldintza bete behar dituztela: ingurumenaren, teknikaren eta ekonomiaren arloko bermeak eman behar dituzte. Baldintza horietariko bat ez betetzeak eragingo luke proiektu horiek baztertzea, eta eztabaida hau amaitzen ez den arte defendatuko dute, orain arte bezalaxe, frackingeko jarduerarik ez baimentzea -ez ustiapenekorik ez azterketakorik- ez badira

compromiso Euskadi 2020, así como la reforma de la Ley de conservación de la naturaleza para prohibir la extracción de áridos en zonas protegidas. El Tribunal Constitucional, decidió que esta decisión contravenía la legislación básica con lo que condenó a la Comunidad Autónoma Vasca a indemnizar a empresas que estaban realizando prácticas plenamente dañinas con el medio ambiente, por ello, porque las decisiones que se adoptan desde el voluntarismo tienen en ocasiones consecuencias que se acaban pagando con los impuestos de los ciudadanos, los Socialistas Vascos se comprometen a adoptar todas las medidas que sean necesarias para que los Vascos no vuelvan a ser los paganos de decisiones adoptadas sin base legal suficiente. Teniendo en cuenta lo anterior, los Socialistas Vascos, resuelven ante el debate abierto en torno al fracking que es imprescindible lograr el equilibrio entre el respeto al medio ambiente y el progreso. Existe una regulación legal propia sobre la extracción de hidrocarburos, solicitan datos técnicos sobre los pros y los contras de cada posible actividad extraída incluido el fracking, quieren que este debate sea lo largo que tenga que ser para hacerlo con serenidad y no desde la soflama y la falsedad. Creen que la iniciativa legislativa popular impulsada por la plataforma anti-fracking es una buena oportunidad para realizar este debate. Creen que la mejor corresponsabilidad con el medio ambiente y las necesidades energéticas de la ciudadanía, es avanzar hacia la autonomía en la producción. Creen que el debate ambiental debe ser paralelo al debate energético y a las necesidades que hay que afrontar para lo que se cuenta con una estrategia energética aprobada la pasada legislatura. Creen que hay muchas dudas sobre el fracking, dudan de informes de apariencia técnicos favorables a esta técnica que pueden esconder determinados intereses empresariales, también dudan de otros informes en sentido contrario que pudieran esconder otros intereses y por supuesto, mantienen y siguen defendiendo que se deben cumplir tres condiciones: garantía medioambiental, técnica y económica. La

horretarako ingurumen-berme guztiak betetzen. Ezin dute mozio horren alde bozkatu, baina eztabaida hori egin arte ez dute horrelako jarduerarik onartuko, beren esku badago, baina ezin dute Ezker Anitzaren mozioaren ebazpen-zatia onartzea planteatu.

falta de una de ellas nos llevaría al rechazo de estos proyectos y mientras no se resuelva este debate defenderán como han hecho hasta ahora, no permitir ni una actividad de explotación ni de exploración en el método del fracking si no se dan plenas garantías medioambientales para ello. No pueden votar a favor de esta moción, pero sí están abiertos a que mientras no se haga este debate no permitirán actividades en la medida en que puedan hacerlo pero no pueden plantear la parte resolutiva que presenta la moción de Ezker Anitza.

* Lopez de Etxezarretak (EO BILDU) adierazi du babestuko dutela Ezker Anitzak aurkeztutako mozioa, frackinga ondorioak ezagutu gabe ere zenbaitek probatu nahi duten teknologia dela eta ardura sentitzen dutenek uste dutela ezin dela ingurunea saiakuntza kliniko baten mende jarri natura akuri bat balitz bezala. Frackinga teknika oso inbasiboa da eta adierazi dituzte horren arriskuak, eta ez dituzte arrisku horiek hartu nahi. Zenbait gobernuk eskura ditugun energia berriztagarriak gaitzetsi dituzte energia fosilen sortzaileen interesak defendatzeko, baina energiari buruzko erabakietan klasismoa denean joera orokorra zenbait administraziotan, ezin dira ezagutzen ez dituzten ondorioez fidatu. Energia garbi eta berriztagarrien alde egin behar da. Hor dago etorkizuna, esperimentuak gaseosarekin egiten dira, baina ezin dira agentziak oraindik ebaluatu ez dituen arrisku batzuk hartu. Ez dute akuri izan nahi gure ingurunean eta etorkizuneko belaunaldiengan eragin zuzena izan dezakeen gai honetan. Bestalde, uste dute, askotan, bertan ez baditugu arazoak edo arriskuak, ez dugula kezka gehiegirik izaten. Momentu honetan ez dute uste Errenterian frackingik egingo denik, baina gaur hau onartzeak edo behintzat hona ekarri izanak ere baduela balio bat solidaritatea adierazteko.

* Interviene la Sra. Lopez de Etxezarreta (E.O. BILDU) manifestando que van a apoyar la moción presentada por Ezker Anitza, que el fracking es una de esas tecnologías que algunos quieren ensayar sin conocer en profundidad sus consecuencias y los que tienen sentido de la responsabilidad creen que no es posible someter al entorno a un ensayo clínico como si la naturaleza fuera una cobaya. Se han señalado los riesgos que supone una técnica tan invasiva como el fracking y no quieren asumir esos riesgos. Cuando hay gobiernos que han condenado a las energías renovables a nuestro acceso por defender los intereses de los generadores de energías fósiles, cuando el clasismo en las decisiones sobre la energía es la pauta general en algunas administraciones, no pueden fiarse de las soluciones cuyas consecuencias no conocen. Hay que apostar por las energías limpias y renovables. Ahí está el futuro y los experimentos se hacen con gaseosa pero no se pueden asumir los riesgos que la agencia aún no ha podido evaluar. No quieren ser conejillos de indias en un tema que puede incidir de manera directa sobre nuestro entorno y sobre las generaciones futuras. Por otro lado cree que seguramente muchas veces no nos preocupamos demasiado de los riesgos o problemas que no nos afectan directamente. No cree que en este momento exista en Errenteria la posibilidad de que se lleve a cabo el fracking. Quiere mostrar de alguna manera la solidaridad con el tema que se trae al Pleno .

Mintzaldiak amaitutakoan.

Bozkatu dute proposamena, eta hau izan da emaitza: 9 boto alde (OE BILDU eta Errenteriako Ezkerra), 9 boto kontra (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak eta PP) eta 3 abstentzio (EAJ-PNV). Berdinketa gertatu denez, alkateak adierazi du ez duela bigarren bozketarik egingo. Ondorioz, Udalbatzak

E R A B A K I D U

Ez onartzea Errenteriako Ezkerrak (Ezker Anitza-IU) aurkeztutako mozioa, eskatzen zuena Errenteria "frackingik gabeko eremu" izendatzeko.

Amaitu aurretik, Julen Mendoza alkateak (OE BILDU) guztiei urteberri on opa nahi die, bereziki Ahizpeari eta Luis Maririri.

**5. Galdera-eskariak.**

Inork ez du galdera-eskaririk egin.

----------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 19:35 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

Finalizadas las intervenciones.

Sometido el asunto a votación se da el siguiente resultado: 9 votos a favor (O.E. BILDU y Errenteriako Ezkerra), 9 votos en contra ( Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak y PP) y 3 abstenciones (EAJ-PNV). Siendo el resultado de la votación el empate, el Sr. Alcalde señala que no va a someter el asunto a una segunda votación. Por tanto, el Pleno de la Corporación,

A C U E R D A

No aprobar la moción presentada por Errenteriako Ezkerra (Ezker Anitza-IU) solicitando la declaración para Errenteria de "municipio libre de fracking"

Antes de finalizar el Sr. Alcalde Julen Mendoza (O.E: BILDU) quiere desear a todos un feliz año nuevo pero especialmente a Ahizpea y a Luis Mari.

**5.- Ruegos y preguntas.**

No se produce ruego ni pregunta alguna.

----------

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 19:35 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al ______ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.